


• **Futbola**

Osasuna: Gorritxoek 1-3 galdu zuten Numanciaren aurkako lagunarteko partidua → **35**

• **Saskibaloia**

Timinkas eta Stombergasen aldeko epaia → **37**

• **Pilota**

Lau t'erdiko txapelketa:
Oscar Goñik eta Elkorok ligaxkan aritzeko txartela izango dute jokoan gaur Zegaman → **39**

Alaves ♦ Magnok eta Epitiek sartu zituzten gasteiztarren golak; Strandek eta Sogardek norvegiarrenak

Reala ♦

Uste baino gehiago kostata

Alaves aurrera, UEFAan atzo Lillestromekin berdindu eta gero

Alaves	Lillestrom
2	2

Alaves.- Herrera; Geli (Gañan, 85 m.), Eggen, Karmona, Tellez, Djolonga; Desio, Astudillo, Mario (Epite, 57 m.); Magno Mocelin (Vucko, 57 m.), Ivan Alonso.

Lillestrom SK.- Baron; Zanetti, Berstend, Bjarmann, Hansen; Strand, Hellend (Haug, 80 m.), Sogard, Fjeldstad; Sungot, Powell.


GOLAK: 1-0. Magnok (1 m.). 1-1. Strandek (4 m.). 1-2. Sogardek (50 m.). 2-2. Epitiek (69 m.).

ARBITROA: Attila Hanacsek (Hungaria). **Txartel horiak:** Helland (63 m.) eta Zanetti (68 m.).

Asier Errasti / Gasteiz

ESPERO zitekeen bezala, Alaves gaur eguardian egingo den UEFAko hirugarren kanporaketako zozketan egongo da. Alta, norvegiar 1 eta 3 irabazi eta gero, espero baino gehiago sufritu zuten atzo gasteiztarrek Mendizorrotzan Lillestrom SKren aurkako kanporaketa aurrera ateratzeko. Izan ere, Alavesek kanporaketa uneoro eskutan izan bazuen ere, Lillestrom SK 1 eta 2 aurretik izan zen markagailuan bigarren zatiko hainbat minututan.

Partidua nola hasi zen ikusita gainera, are eta harrigarriagoa izan zen atzo gertatutakoa, lehen minutua bete aurretik Alaves markagailuan aurretik baitzen Magno-ren gol bati esker. Partiduko lehen jokaldian, Magnok atezainaren gainetik loratu zuen baloia eta ostean, sareetara bidali zuen buruz. Handik lau minutu eskasera berriz, Strandek markagailua berdindu zuen jokaldi berezi batean. Norvegiarrak eskuin hegaletik erdiratu zuen eta



MIREN SAEZ

Magno, Alavesen lehenengo gola ospatzen. Norvegiar ere beste gol bat sartu zuen brasildarrak.

«Futbolearen ezer errazik ez dagoela ikusi da»

■ JOSE MANUEL ES-NAL *Mane* gustora zegoen atzo Alaves jada UEFAko hirugarren kanporaketan dagoelako. Balmasedakoak gainera, partidua berak esperotako bidetik joan zela azaldu

zuen: «Batonbatzuk norvegiarrak oportetan zetoze esaten zuten baina guk genioen bezala, futbolearen ezer errezik ez dagoela ikusi da. Jada inork ez du oparirik egiten. Hau Europa da eta hemen ez

dago aurkariari ezer ematerik».

Lillestrom bezalako taldeen aurka jokatzeko zaila dela ere nabarmendu zuen atzo Manek: «Ez da erreza horrelako futbol zuzena egiten duten taldeen aurka

aritzea. Oso oinarritzko jokoa egiten dute baina argi ez bazaude, edozein jokalditan gola egiten dizute. Beraiei gola egitea berriz, zaila da, jokalaria ia denak baloiaren atzetik izaten baitira beti».

inork ikutu gabe, baloia zuzen-zuzenean Herreraren sareetara joan zen ustekabe. Hortik aurrera, Alavesek hainbat gol aukera izan zituen eta Mariok baloi bal zutoinera ere bidali zuen. Alta, jokoa oso motela zen, erritmo eta tentsiorik gabea.

Bigarren zatia hasi eta berehala berriz, ustekabea etorri zen. Jokaldi landu baten ostean, Zanettik eskuin hegaletik erdiratu zuen eta Sogardek norvegiarren bigarren gola egin zuen buruz. Hortik aurrera, ezinezona eta urduritasuna nagusitu ziren

Mendizorrotzan hainbat minutuz, Lillestromek luzapena behartu baitzezakeen gol bat eginda. Alta, ez zen horrela gertatu eta 69. minutuan, zelaira hamar minutu lehenago irtendako Epitiek lasaitasunaren gola egin zuen jokaldi nahasi bat baliatuta.

Periko Alonsok atzealdea sendotuko du Oviedoren aurka

Aurrealdean baliteke De Paula aritzea Jankauskasen ordez

Jon Balenziaga / Donostia

PERIKO ALONSOK atzealdeko lerroa sendotzea nahi du eta, gaitz horri sendabidea lehenbaitlehen jarri asmoz, Oviedoren aurka hiru zentral zelairatuko ditu. Atzo arratsaldean eginitako lan saioan partidatu txiki bat antolatu zuen Alonsok, eta bertan ondorengo jokalariei hauek aritu ziren ustezko titularren taldean: Alberto; Rekarte, Gurrutxaga, Corino, Pika-bea, Aranzabal; Jauregi, Aranburu, Idiakez, Kholkhlov; eta De Paula. Bi zati izan zituen atzoko partidua, eta bigarren zatian aldaketa bakarra egon zen, De Paularen ordez Jankauskas aritu zen ustezko titularrekin. Hortaz, pentsatzekoa da Alonsok zalantza bakarra duela Oviedoren aurkako partiduan hasieratik zelairatuko duen hamaikakoari dagokionez.

Egunak pasa ahala, geroz eta garbiago dirudi Fuentes ez dela etzizirako osatuko. Atzo korrika aritu zen eta Gabilondok, aldiz, ez zuen entrenatu sukarra zuelako.

De Pedro: «Taldeak baditu bi potro»

Javier de Pedro ez da titular izango igandean, baina oso baikor dago taldeak etorkizunean eman dezakeenaz. «Taldeak baditu bi potro egoera honetatik irteteko», esan zuen atzo. Alonsok, Clementek baino konfiantza gehiago eman diola ere esan zuen. Real gaur 10:30etan entrenatuko da Zubietan.